

ULIBARRI EUSKALTZALEAK LUNO-KO AITA MARIANO KAPUTXINUARI EGIN EUTSON ESKUTITZA 1826-AN.

Ordua zan Ulibarri-ren bititza ta idazlanai buruz orainarte jakin dogun baiño zeozer geitxuago jakiteko. Aita Akesolo-k egin dabezan billatze-aldiak ez dira alperrik galduak izan, ez diralako ezer aurkitu barik gelditu. Or daukaguz argitaratu dabezan idazlan batzuk, nik dakidazenak iru bai beintzat, zeñ baño zeñ jakingarriaguak (1). Amador Carrandi-k be idatzi dau BRSVAP aldizkarian (2).

Uste dot Ulibarri-k garrantzi aundia daukola euskal kulturaren kon-dairan, Sarako Etcheberri medikuak daukon moduan, eta mereziduko leu-kela astiro astiro ikustia berak egin eta idatzi ebazan gauza guztiak. Me-dikuen batek egingo bale, so ikustaldi on bat *Gutun liburua*-ri, baleiteke Abandoko erradore edo beteriñariyuaren bizitzarako gauzen batzuk esatia. esate baterako Marañonek eta Kretschmer-ek egin ebezan lanetan esan ebezan gauzen antzerako batzuk.

Aita Akesolo-k diñoskunez, Gutun liburua-k eskutitzetatik kanpora daukozan gauzetatik zatiren batzuk argitaratu egin ei ebezan igaro dan gizaldiaren azkenengo urtietan, eta orregaitik ez ei zan ain ezezaguna esku ezkribu ori (3). Baiña eskutitzak argitaratu barik gelditu ziran,

(1) Lino de AQUESOLO: José Pablo de Ulibarri Galíndez (1775-1847). «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», XVIII (1962), 25-35.

— Algo más sobre el escritor Ulibarri. «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», XVIII (1962), 415-421.

AXMUTIL: Euskal-egutegirik zarrena. «Jesus'en Biotzaren Deya» (Otsaila edo Zezeilla, 1962), 23-24.

—Euskal esnale ta euskal idazle. Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea. «Zartzikote» (Olerti sorta, I-II [1926] 121-142).

(2) Florencio Amador CARRANDI: El vascofilo José Pablo de Ulibarri y Galíndez (1775-1847). Nota complementaria. «Boletín de la Real Sociedad de los Amigos del País», XVIII (1962), 323-325.

(3) BRSVAP, XVIII (1962), 419-420.

itxuria danez beintzat, Urkijo-k emon ebazan zati laburrak kendu ezkeru.

Iztueta-ri egindakuak, eta onen erantzunak be bai, BRSVAP aldizkarian argitaratu genduzan (4).

(4) **Del Epistolario inédito del Herrador Bascófilo de Abando. Correspondencia de Juan Ygnacio de Iztueta y José Pablo de Ulíbarri Galíndez.** «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», XVII (1961), 313-321.

Emen argitaratu nebazan zazpi eskutitzen utsak eta okerrak zuzentzeko era obarik ez dot euki orainarte, eta emen egiten dodaz:

314'garren orrialdian:

10'garren lerruan: **Abandotik** ipinten dau, eta **Abandorik** ipiñi biar da.

12'garrenian: **euskeria**, eta **euzkeria** ipiñi biar da.

13'garrenian: **ecorri**, eta **ecarri** biar.

315'garren orrialdian:

3-4'garrenian: **Cuchoncian** = **Cuch-oncian**.

5'garrenian: **euzkalduna** = **euzcalduna**.

9'garrenian: **tokiari** = **toakiari**.

13'garrenian: **escuti** = **escutic**.

21'garrenian: **fraizcu** = **Praizcu**.

35'garrenian: «Arozena Yaunari» itzaren urrengo, auxe geitu: **eman necion ni zeuriac** eta **Arozenac Basaguren Yaunari**.

316'garren orrialdian:

5'garren lerruan: **deran** = **dezan**.

8'garrenian: **euscara** = **euscarra**.

10'garrenian: **uste** = **ustz**.

18'garrenian: **gaucetan** = **paucetan**.

22'garrenian: **biotz** = **diotz**.

31'garrenian: «(10)» oarra, urrengo lerroa aldatu biar da, Iztueta-ren esku-titzaren asierara.

34'garrenian: **nere** = **neure**.

317'garren orrialdian:

8'garren lerruan: **mandasana** = **mandazaña**.

14'garrenian: «alabari» itzaren urrengo, eta.

14'garrenian: **zaintu** = **zaiutu**.

29-30'garrenetan: **aundibat** = **andibat**.

318'garren orrialdian:

11'garren lerruan: **poderocisimo** = **poderosicimo**.

17'garrenian: **V.M. U.** = **V.M. U^a**.

18'garrenian: **gue** = **guē**.

19'garrenian: **U** = **U^a**.

25'garrenian: **U** = **U^a**.

33'garrenian: **dempora** = **demporan**.

33'garrenian: **bañan** = **baña**.

319'garren orrialdian:

3'garren lerruan: **derana** = **dezana**, eta **siñistatu** = **sinistatu**.

6'garrenian: **lenago** = **lenagoco**.

10'garrenian: **gucienac** = **gucienac**.

12'garrenian: **disquizut** = **dizquitzut**.

13'garrenian: **euskarazco** = **euscarazco**.

20'garrenian: **arc** = **are**.

Erro ministroari egindakua, EUSKERA onetan bertan (5).

BRSVAP dalakuan agertzen asi gara orain Mendizabal Tolosa-kuari egin eutzezanak (6).

1826-garren urtian Madrillen zeguan Luno-ko Aita Mariano kaputxiñuari egin eutsan eskutitz bakarra da emen argitaratzen doguna:

Eztaikit ezer fraide onen bizitzari buruz. Aita Julian Yurre-kuak, edo bere ordenako idazlien batek, nik baño erreztasun geiagogaz aurkituko leukiez Aita Mariano kaputxiñu orren bizitzako zeztasunak.

N. ALZOLA



(7) *Agur Aita Donikille Mariano Luno-co.*

ABANDO 6 urrilla-co, 1826 gⁿ. uⁿ.

Neure Aita maitia: Ichadoten dot gutun onec aurkitako dabela osasun osos beterik, egoteco gustioc Posturic. ——— or ysango zan neure Emaste Maripepa Landa-co, eldu biartsan botsgarrenian [sic] cein san egunian. Santatoico Abade Maizu Jaunaz eta orco Capuchinu lego bategaz. cochean Juan cirian. &. or doa gutune Mari pepa entzat, eguingo dau mecede ezcuañatzea, orra elduten darian (8) ——— esan beguiyo gustioc gagozala osa sunegaz emeti, eta bera bere gorde dayela osasune esabici edo unore onian euzcaldun leguean sendo eta bakian Madrid ondo ecuzian. esan beguiyo

22'garrenian: bera = bere.

26'garrenian: Galai, gaztecho = Galai gaztecho.

321'garren orrialdian:

5'garren lerruan: onen 3-an = ile onen 3-an.

Eusk eta euzk, s'kin eta z'kin, bietara erabiltzen dauz Ulibarri-k.

1827'ko Burula-29'garrenekuan: escuera, escueria, euscara eta euzcara, euscarra, euscaran, euzkera, euzkeria, euzkeriari, euzkerati, euzkeriaz, euscaldun eta euzcaldun, euzcaldunac.

1828.gko. orrilla-24'kuan: euzkeria, euzkeraz, euzcaldun, euzcalduna.

1829'gko. Cemendian Yru'kuan: euzkerazcoac.

(5) XIX'garren gizaldiko euskal izkribuak. Jose Paulo Ulibarri'koak 1823'garren urtean Erro ministroari egin zion eskutitza, eta beste batzuk [Ygnacio de Echevarriari, eta onen erantzuna]. EUSKERA, VI (1961), 231-237.

(6) Bakoitzian gitxi bakarrik argitaratuko doguz BRSVAP dalakuan, ba pillu bat dira, eta danak batera argitaratzeko toki larregi eskatzia izango litzake aldizkariari.

(7) Eskutitz au, Gutun-liburuaren 56'garren orrialdian dago.

(8) Mari Peparrentzako eskutitz au, Gutun-liburuaren 57'garren orrialdian.

Aita Villarori estaiyela astu berac eta neuc ygaro guenduan gauzac [sic] emeti debruciñoa ibili zan eran Maripa [sic] doyela Icusten ea celan dagoan, eta ni bere bici banaz estaukedala ustea galduric Iuateco biyoc Icusten (9) emongotso goranziac dirialaco gogoco ansiyac eta azcogureac &c Orain biyoc daucozube emen ecurtari edo Cerbitzari gogor bat nic aldodana eguiteco, gueure Erritar gustieri goranciyac eta Agur eguinic

Jose Paulo Ulibarri-co Galindex

A R P. fray Mariano de Luno en el Combento del Cristo de la Pacencia [sic] Capuchinos en Madrid.

(9) Tintaz borratuta dago emen itz bat.